

## HIL-BERRIAK

### LOUIS DASSANCE (1888-1976)

1888-ko abuztuaren 20-ean, Uztaritze-Irigoienean Dassance-tarrerri seme bat sortu zitzaizen. Luis eman zioten izena. Dassance-tarren familia lekuko zaharrenetarik da. Aspalditik eman ditu notari eta kargudunak, bai eta fama handiko apez euskalzale bat: Pierre-Mérelle Dassance, Pamiers-ko apezpikutzat galdegina.

Luis gazteak lehen eskolak Uztaritzeko freretan egin zituen, bigarren mailakoak Larresoroko Seminario tipian, laborantzakoak *Institut National Agronomique* Pariseko ikastegian, hortik "ingénieur agronome" ateratu baitzen.

Gaztean, bere lanetarik landa, laket izan zuen bidez eta xendraz oihanetan gaindi ihizin ibiltzea, bazter guzien eza-gutza eginez, ohartuz bai hegazkineri, bai landare berezieneri, geroxago euskaraz eman bahar baitzauskun xehetasun andana bat.

Pilota ere gogokoa zuen, beregainki joko garbia; baina errebotetaz bazuen kezka frango, gal zadin beldurrez. Federazioneko lehen lagunetarik izan zen eta haren gain ezarri zuten erretuteko legeen batetaratzea, ordu arte herri batetik bertze-ra desberdin baitziren eta zenbait aldiz makur-bide.

14-eko gerla piztu zenean, 28 urte zituen; bere adinekoe-kin joan behar ukan zuen gudu burtitzetarat, eta bi medaila eman ziozkaten lanferari erneki buru-egin sari.

Etixerat itzuli-ta laborantzari berriz ere lotu zitzaion hortez eta haginez; laster nekazari buruzagiak ohartu ziren haren seriosari, eta ofizioko batasunetan egin zioten leku, bai Euskal herrikoetan, bai departamendu guzikoetan. Hemen ez dugu horko lanez xehetasunik emanen, luzegi bailiteke.

Uztaritzen berean ere egin du zerbitzu. Bere herria ongi ezagutzen zuen; haren ixtorioa konda zezaken aspaldiko mendetarik hunat auzoz-auzo, kasik etxez-etxe. Liburuxka bat ere atera zuen Uztaritze zaharraz: "Ustaritz: ses assemblees, son tribunal" gerlatik landa, 1914-an herriko axuant eman zuten eta hogeitaz urte atxiki; 1939-an berriz auzapez

bertze hogei urtetako; 1959-an berak utzi zuen kargu hori gazteago bati.

Orotan zer nahi zerbitzu erainaik, ez da harritzeko esker onez ohoreak egin baitiozkate: "Legion d'honneur" delakoa-ren gainerat, hamar bat medaila eta kurutze ukan ditu bere merezimenduen gatik.

Bainan Luis Dassance jauna laborarien eta herritarren intereseri bezain atxikia zen euskal kulturari.

1921-ean Saint Pierre, Barbier, Elissalde, Moulier, Apezteguay, Choribik, Christophe Dufan bere dixkidekin sortu zuen: "Gure Herria" kulturazko agerkaria. Eman ditake hartaz arta hartu duela hil arte, aste huntan jalgi zenbakian irakur baititake haren azken artikulua, Barbier zenaz. Errebixta hortan aurki ditazke naski haren izkiribu nausi gehienak:

- hor agertu dira haren hitzaldi andana bat;
- hor aipatu ditu Topet-Etxahun, Beñat Mardo, Elissanburu eta Goroztarzu poetak;
- hor eman du Lapurdi zaharreko berri;
- hor publikatu asko bertsu zahar;
- hor ikertu pilotaren ixtorioari doazkon pondu batzu;
- hor ezagut arazi Darrigol gramatikazalea;
- bertzeak bertze...

1921-ean, orduko gazte multzo batekin, *eskualzaleen Biltzarrean* sartu bazen sortu, 1925-ean Jean Archepare medikuaren orde ezarri zuten buru, 32 urte kargu hortan egon beharra, haren denboran izan baitira batasun horren egunik ederrenak, lagunak ostera bilduz, gazten arteko eukal sariketak bertsolariak, teatrolariak sustatuz.

1949-an euskalzain oso izendatua izan zen Dassance jauna, eta orduan arruitzekoa gertatu zen. Euskalzain berriaren sartzea Danostian egin beharra baiginuen, kazeta guziek aintzinetik nasaiki aipatu zuten gertakaria. Jende hainitzek etorri gogo zuten jai hortarat, mugaz bi aldetarik. Lapurtar andana bat baginen Dassance jaunaren segi. Diputazioneko plazarat hurbiltzen, gure harritzea: Karrikak soldaduz beteak! Zerbitzarik orduan auxe atera zuen: "Errak, Luis, ohore handitan errezebituko hie!" Bainan Oleaga etorri zi-

tzaikun biderat: "Gobernadoreak ez gaitu uzten!" itzuli ginen jin-bidez, eta Baionan egin zen sartzeara, ondoko egun batez.

1957-an *Ikas* batasuna bultatu zuen euskara eskoletan sar-arazi nahiz.

1960-ean "Comeil de Defense du Langues et cultures regionales de Paris" deitu elgargoko buru-orde ezarri zuten.

Haste-hastetik Baionako "Musse Basque" delakoa onhar-tu eta lagundurik, haren adixkideen buru ere egin zen, euskal kultura-bide hoberenetarik zitzaiolaketz.

Anartean Dassance jauna ari izan da toki-izen bilatzen, Lapurdiko dantza-jautzi zaharren xerkatzen, kantu biltzen. Jakin behar da *Kanta*, *kantu*, *khanture* bildumak hainitz zor diola, eta Azkueren *Cancionero* handiaren edizione berrian haren oharpen baliosak badirela.

1944-ean "Herria" kazeta sortu zenetik hunat Dassance jaunak beti lagundu duela badakigu eta ondar astekaraino jarraiki zaiola.

Ahanztera ginuazin *Almanakan* ere izkiriartzen zuela eta haste-hastetik *Euskararen egunak* ez duela izan sustatzale hartsuagorik.

Baina bera nor zer zen Luis Dassance jauna?

"Gizona" zela erraitea aski dela uste dugu, gizonki ereman baitu bere bizi guzia, zuhurtzia handirekin, beti denen zerbitzuko, denekilakua eginez, zuzenki barnan arraiki, pazientzia legetzat harturik, jainkua lagun. Ezen fededuna zen. Ez zuen bere fedeaz espanturik egiten, bainan ez zuen izkututzen: Laket zuen elizan ibiltzea eta aitortzen zuen euskal liturgia berriak barna hunkitzen ziola bihotza.

Apirilaren 13-an elizakoak hartu ta, biharamun goizeko oren batean pausatu da ezagutza osoan, ezti-eztia, bere andreak eta bortz hurrek inguratzen zutela.

Mundu bat bildu da haren ehorztetarat urtzirale sainduz, eta oraino gehiago haren hil-mezarat. Bazko beharamunean, departamendu guzitik bainan bereziki Euskal-herriko alde gehienetarit.